

PROIEKTUAREN OBRAK GAUZATZEKO KONTRATAZIO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

ORIO

NUEVO BOMBEO AMBULATORIO ZONA COFRADIA

1.	KONTRATUAREN XEDEA	2
2.	OBREN DESKRIBAPENA.....	2
3.	KONTRATISTAK ESKURATU BEHARREKO INFORMAZIOA.....	2
4.	OBREN EXEKUZIOA	2
5.	GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK	4
6.	ERABILI BEHARREKO MATERIALAK	4
7.	LIZENTZIAK, BAIMENAK ETA BESTELAKO GASTUAK	4
8.	INGURUMEN BALDINTZAK	5
9.	SEGURTASUNA ETA OSASUNA	5
10.	OBREN EDO INSTALAZIOEN SEINALEZTAPENA	6
11.	KONTSERBAZIO BETEBEHARRA	7
12.	ESLEIPENDUNAREN ARDURAKO ERANTZUKIZUNAK ETA KALTE ORDAINAK.....	7
13.	OBREN HARTZEA.....	8
14.	KLAUSULA. Datu pertsonalen babesa.....	8

1. KONTRATUAREN XEDEA

Proiektu honek arrantzaleen kofradiaren eraikinaren ondoan kokaturiko saneamendu sarean tarte baten berrikuntzarako beharrezko diren jarduketak barneratzen ditu. Tarte hau, hasiera Orioko kanpinean duen eta portuko ponpaketa isurtzen duen kolektore baten azken zatiari dagokio. Hodian zehar asentuak eman dira, honen gaitasuna minimora murriztuz.

Eroanbidearen luzera dela eta, kolektorearen sakonera tarte honetan 6 metrotara hurbiltzen da.

Sakonera horrek eta eraikinen arteko pasabide estu batean kokatzearen baldintzak eragotzi du orain arte eroanbide honen berritzea gauzatzea.

Gainontzeko hodia zerbitzuan mantentzeko helburuz, bere garaian behin behineko ponpaketa bat eta tartearen by-pass bat instalatu ziren.

Laster, ondoko eraikinen eraispena barneratzen duen jarduketa urbanistiko bat garatuko da.

Baldintza horri esker, kolektore hau ohiko tekniken bidez berritzea ahalbidetzen da. Hala ere, obra honen exekuziorako denbora tarte oso murrizta da. Baldintza honek justifikatzen ditu obraren PREMIAZKO izaera eta aurkezturiko epe estuak.

2. OBREN DESKRIBAPENA

Obrak putzuen arteko tarte bakar baten exekuzioa barneratzen du, gutxi gora beherako 36 metro

linealeko guztizko luzerarekin. Instalatu beharreko hodia PVC-zko Ø 400mm-koa izango da. Jasan

beharko dituen kargak direla eta, PVC SN8 hodia aukeratu da, zirkunferentziako zurruntasun

handiagokoa izateaz gain, hormigoizko prisma baten barnean kokatua joango delarik.

Guzti hori kontuan izanik, lanek ondorengoan datzate gehienbat:

- Eraispenak, zangen hondeaketa eta betelana.
- Saneamenduko PVC Ø 400 mm kolektoreen instalakuntza.
- Fabrika obren exekuzio edota berritzea.

3. KONTRATISTAK ESKURATU BEHARREKO INFORMAZIOA

Zundaketei, dauden zerbitzu-azpiegiturei, materialen jatorriari eta saiakuntzei buruzko datuak, egikaritze-proiektuaren memorian jasotakoak, erakunde kontratatzailearen informazio-dokumentuak dira. Hala ere, horrek ez du esan nahi bere egiazkotasunaren erantzukizuna hartzen duenik, eta, beraz, Kontratastak zuzenean eta bere baliabideekin eskuratu behar duen informazioaren osagarri gisa hartu behar dira, besterik gabe.

Kontratista izango da kontratuari eta obren gauzatzeari eragiten dieten datuak ez lorzeak edo zabarkeriak eragin ditzakeen akatsen erantzulea.

4. OBREN EXEKUZIOA

Enkargatutako obrak proiektuan eta/edo eskaintzak eskatzeko erabilitako informazioan, "Lex artis" ean eta erantsitako gainerako dokumentuetan jasotako zehaztapenen arabera gau-

zatuko dira, bai eta proiektu teknikoan eskatutako kalitatea lortze aldera behar bezala amaituta gera daitezten aplikagarri diren agindu, erregelamendu, lege eta gainerako arau guztien arabera ere.

Esleipendunak 10 egun naturaleko epean, obren esleipena jakinarazten denetik zenbatzen hasita, hasi beharko du obrak egiten.

Esleipendunak, obrak hasi aurretik, Gipuzkoako Uraki ondorengo dokumentazioa eman beharko dio:

- Dokumentu hau orrialde guztietan behar bezala sinatuta eta zigilatuta.
- Lantokiaren irekiera-erregistroa.
- Obren Hondakinen Kudeaketa Plana.
- Eskaintzan aurkeztutako epeari egokitutako lan-plangintza, (plangintza hori astero eguneratu beharko da, eta obran eskuragarri egon beharko du obrak dirauten bitartean)
- Obra-instalazioen, baliabide laguntzaileen eta behin behineko obren aurreproiektua, obrarako irigarritasuna, seinaleztapena eta segurtasuna (hesiak, babesak, etab.), obra-bulegoa, aldagelak, biltegi eta bestelakoak barneratzen dituelarik, eta programa betetzeko gaitasuna duela egiaztatzen duen justifikazioa.

Esleipendunak, obrak dirauen bitartean, teknikari eskudun bat eduki beharko du etengabe.

Esleipendunak, obrak dirauen bitartean, iturgin eskudun bat eduki beharko du etengabe.

Esleipendunak ezingo du inolako aldaketarik egin, ezta dimentsio edo kalitaterik aldatu ere, Gipuzkoako Urak S.A.ren idatzizko onarpenik gabe.

Esleipendunak, zehaztutakoa gorabehera, obraren zatiren bat exekutatzen badu eta erantsitako proiektuan zehaztutakoa aldatzen badu, egindakoa eraitsi beharko du, eta itundutakoaren arabera berregin, guztia hori bere kontura.

Ez dira ordainduko Segurtasun- eta osasunari dagozkien unitateak, horietarako aurrekontu espliziturik ez dagoen kasuetan, kasu horietan, esleipendunak gastu horiek proiektu-unitateetan kontuan hartu beharko dituelarik.

Ez dira ordainduko Kalitateari dagozkien unitateak (probak, desinfekzioa, etab.), horietarako aurrekontu espliziturik ez dagoen kasuetan, kasu horietan, esleipendunak gastu horiek proiektu-unitateetan kontuan hartu beharko dituelarik.

Ez dira ordainduko Obra-amaierako dokumentazioari (planoak, ziurtagiriak entregatzea,...) dagozkien unitateak (probak, desinfekzioa, etab.), horietarako aurrekontu espliziturik ez dagoen kasuetan, kasu horietan, esleipendunak gastu horiek proiektu-unitateetan kontuan hartu beharko dituelarik.

Ez dira ordainduko Hondakinen Kudeaketari dagozkien unitateak (probak, desinfekzioa, etab.), horietarako aurrekontu espliziturik ez dagoen kasuetan, kasu horietan, esleipendunak gastu horiek proiektu-unitateetan kontuan hartu beharko dituelarik.

Gipuzkoako Urak S.A. enpresak, bere langileen bidez edo kontratatutako enpresa baten bidez, lanak egin direla ikuskatu ahal izango du, bai eduki materialei dagokienez, bai segurtasunari dagokienez ere.

Obra-unitateren bat gauzatzean akatsik edo hutsegiterik ikusten bada, hura eraisteko eta berreraikitzeke agindua emango da, esleipendunaren kontura. Aurrekoa gorabehera, onargarritzat jotzen badira, Gipuzkoako Urak S.A.k, esleipendunarekin adostuta, dagokien prezio murriztapenarekin onartu ahal izango ditu.

5. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Lanak antolatu eta gauzatzea esleipendunaren ardurapean egongo da, agindutako obra egiteko behar den eskulana, laguntzailea zein espezializatua, hornitzera behartua dagoelarik, soldatak, garraioak eta beste edozein karga sozial bere kontura izanik. Beraz, obra egiten parte hartzen duten langile guztiak honen mendekotzat hartuko dira ondorio guztietarako, zuzendaritza fakultatiboa osatzen duten teknikariak eta segurtasun-koordinatzailea izan ezik.

Esleipendunak obran dauden langileek obra behar bezala egiten dela bermatzeko beharrezko prestakuntza, esperientzia eta maila profesionala dutela zainduko du, agindutako lanak egiteko kalitateari eta denborari dagokienez.

Era berean, esleipendunak, obrak gauzatzen hasi baino lehen, obrako buru bat izendatuko du, eta horrek bere gain hartuko du eraikitzaileak obran izango duen ordezkartza teknikoa. Esleipendunaren arduradunaren eginkizuna izango da, besteak beste, bere plantillako langileei agindu zuzenak ematea, lanak behar bezala egiteaz arduratzea eta bere mendeko langileei dagozkien laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak betetzea eta betearaztea.

Esleipendunak obra egiteko beharrezkoak diren erremintak, makineria eta gainerako baliabide materialak emango ditu, indarrean dagoen araudia bete eta erabilera- eta kontserbazio-goera ezin hobean egongo direlarik.

6. ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Obrak hasi aurretik, kontratistak idatziz jakinarazi beharko ditu proiektuan aurreikusitako unitate bakoitzean instalatuko diren materialak eta markak.

Gipuzkoako Urak sozietateak aldeztu aurretik onartu beharko du "**Material Homologatuen Zerrenda Eranskinean**" ez dagoen beste edozein material edo marka, hori ezinbestekoa izango delarik obretan erabili ahal izateko.

7. LIZENTZIAK, BAIMENAK ETA BESTELAKO GASTUAK

Esleipendunak kontratatutako obrak edo instalazioak gauzatzeko behar diren baimen eta lizentziak eskatu, kudeatu eta lortu beharko ditu, obren Udal Lizentzia ematea izan ezik, esleipendunaren kontura izango direlarik obra horiek kudeatzeak eta gauzatzeak eragiten dituen gastuak, tasak eta gainerako zergak.

Esleipendunak, halaber, besteak beste, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren zenbatekoa eta Obren Udal Lizentziagatiko tasaren zenbatekoa ordainduko ditu.

Kontratistaren ardurakoa eta bere kontura izango dira alta eta funtzionamendu-baimena lortzeko, sareetara eta zerbitzuetara lotzeko, behin-behineko eta behin betiko hartuneak egiteko eta, oro har, instalazioen funtzionamendu egoki eta legeztatua gauzatzeko guztia kudeaketak egitea, gastu, tasa, ariel eta abar guztiak ordaintzea eta erakunde eskudunetan aurkeztu beharreko proiektuak idaztea eta ikus-onestea.

Esleipendunaren ardurakoa eta bere kontura izango dira eragindako zerbitzuei buruzko informazio guztia biltzea (grafikoa edo beste edozein motatakoa), eta dauden instalazio guztigu-
guztiak bisitatzea zerbitzuen arduradunekin, obrak hasi aurretik, instalazio horietan eraginik ez
dagoela bermatzeko.

8. INGURUMEN BALDINTZAK

Esleipenduna behartuta dago kontratazioaren xedeari aplikatzen zaion ingurumen-
legeria betetzera.

Esleipendunak, arlo horrekin zerikusia duten organo ofizialek ematen dituzten neurriak
oro har betetzen direla zaindu beharko du, batez ere zaratari, isuriei, hondakinen kudeaketari,
eremu elektromagnetikoei eta kontratazioaren xedeari aplikatu beharreko ingurumen-baldintza
espezifikoak asaldatzen dituen edozein elementuri dagokienez.

Esleipendunak bere gain hartuko ditu aipatutako araudia ez betetzearen ondoriozko gas-
tuak.

9. SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Egikaritze-proiektuan jasotako Segurtasun eta Osasun Azterlanari dagokion aurrekontu
partzialaren esleitutako zenbatekoa **ezingo da lizitatzailleen beharanzko hobekuntzen xede
izan.**

Kontratista lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osa-
sunaren arloan indarrean dauden xedapenak betetzera behartua egongo da.

Esleipendunak bere langileei eta, hala badagokio, azpikontratistei, egin beharreko lanei
eragiten dieten segurtasun- eta osasun-planeko neurri guztiak betearaziko dizkie eta une oro
aipaturiko segurtasun- eta osasun-planaren kopia bat izango du obran, zuzendaritza fakultati-
boaren eskura, bai eta, oro har, egikaritzean esku hartzen dutenen eskura ere. Bere erantzuz-
kizuna izango da, beharrezkoa denean eguneratzea.

Era berean, agerian jartzen diren arriskuak ezabatzeko edo murrizteko eta kontrolatzeko
prebentzio-ekintzak eta obra gauzatzeko prozesuaren, lanen bilakaeraren eta sor daitezkeen
gorabeheren arabera egin beharreko aldaketak egitera behartua egonogo da, lan-baldintzen
aldizkako kontrolak eginez. Aldaketa horiek, halaber, zuzendaritza teknikoak onartu beharko
ditu, edo, hala badagokio, Segurtasun eta Osasuneko koordinatzaileak.

Esleipendunak koordinatzailearen segurtasun eta osasun arloko jarraibideei erantzun
beharko die eta aginduak bete beharko ditu Segurtasun Plana onartua izan dadin aurkezten
denetik, eta obrak dirauen bitartean; era berean, zuzendaritza fakultatiboaren jarraibideak eta
aginduak bete beharko ditu.

Esleipenduna, indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen segurtasun-neurri guztiak
praktikan jartzeko, bai eta, lanen inguruabarrak direla-eta, une batez kendu behar izan diren
segurtasun-neurriak berrezartzeko eginkizun espezifikoak duen pertsonala obran mantentzera
behartuta dago. Zehazki, obrako prebentzio-baliabideak izendatzera behartua dago, Lan
Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 32 bis artikuluan eta hamalagarren xedapen gehi-
garrian ezarritako kasuetan eta zereginekin.

Oro har, obran jarduerak garatzen dituzten langile autonomo guztiek araudia betetzen
dutela zaindu beharko du esleipendunak.

Betebehar horien garapenean, esleipendunak:

- Bere langileek, obran lanean hasi aurretik, beren lana egiteko prebentzio-arloan beharrezkoa eta egokia den prestakuntza jaso izatera behartzen da, bai eta beren lanpostuaren arriskuei eta obraren osotasuneko arrisku orokorrei buruzko informazio nahikoa eta egokia ere, segurtasun- eta osasun-plana betetzeko beharrezko jarraibideak helaraziz. Era berean, azpikontratutako enpresetako langileek prestakuntza, informazio eta jarraibide horiek jaso izatera behartzen da, bai eta langile autonomoi informazioa eta jarraibide egokiak ematera ere.
- Bere langileen nahitaezko osasun-azterketak egiten direla zaindu beharko du, eta baita azpikontratutako enpresetako langileenak egin direla egiaztatu ere.
- Prebentzio-jarduera antolatuta eduki, eta arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-plangintza behar bezala eguneratuta beharko ditu, azpikontratengandik prebentzio-jardueraren itunaren egiaztapena, arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-ekintzaren plangintza eskuratzeaz gain, segurtasun- eta osasun-plana obran garatu beharreko lan guztiekin bat datorrela egiaztatuz.
- Gertatzen diren istripuen ikerketa egin beharko du, eta azpikontratei izan dituzten istripuen berri emateko exijituko die.
- Lan-makinak edo -ekipoak erabiltzen dituzten langileen kualifikazio espezifikoa zaindu beharko du, bai bere enpresakoenak eta baita azpikontratenak ere.
- Makinek 1215/1997 Errege Dekretura egokitzen direla dioen adierazpena eduki beharko du, eta zorrotz bete beharko ditu araudi hori eta gainerako arau espezifikoak, bai bere enpresakoek eta baita azpikontratenek ere.
- Erabiltzen duen makineria baduela egiaztatzen duen dokumentazioa edo titulua eduki beharko du, bai bere enpresakoenak eta baita azpikontratenak ere.
- Bere enpresa, azpikontratak eta, hala badagokio, obran parte hartzen duten gainerako enpresak koordinatzeko behar diren bitarteko guztiak hartu eta bete beharko ditu.
- Norbera babesteko ekipamenduen entrega-erregistroak gorde beharko ditu, bai bere enpresako langileenak, bai azpikontratetako langileenak.
- Obran lan egiten duten langileak bai enpresakoak, bai azpikontratetakoak, Gizarte Segurantzari alta emanda daudela egiaztatzen duten ebidentziak aurkeztu beharko ditu.

Esleipendunak klausula honetan aipatzen diren betebeharrak betetzen ez dituela egiaztatzen bada, Gipuzkoako Urak, eragindako kalte-galerak ordainketak egiteko ebazpena emateko eta proiektu honen **Memoriako I Eranskinean definitutako penalizazioak** aplikatzeko ahaldunduko du.

10. OBREN EDO INSTALAZIOEN SEINALEZTAPENA

Esleipendunak behar diren neurri guztiak hartu beharko ditu, obran eta instalazioen exekuzioak dirauen bitartean, bai obra horien barruan, bai ingurunean, esleipendunaren agindupean edo baimenarekin obretan parte hartzen duen pertsonalaren, zein beste edonoren, osotasun fisikoa eta interes legitimoak segurtatuta gera daitezen. Gastu horiek esleipendunak kontukoak dira, eta aurkeztutako eskaintzan sartuta daude, proiektu-unitate ezberdinetan.

Esleipenduna, bere kontura, obretarako sarbideetan, obra-eremuan eta horien mugetan eta inguruetan, obrarako sarbidea, lanek hartzen duten eremuko zirkulazioa eta horien martxa-

ren ondorioz egon daitezkeen arrisku-puntuak adierazteko beharrezko seinaleak jarri eta mantentzera behartua dago.

11. KONTSERBAZIO BETEBEHARRA

Kontratista ez dago obra gauzatzera soilik behartua, baita hauen jaso arteko kontserbazioa egitera ere.

Kontratatik obran ohartaraz daitezkeen hutsegiteen erantzukizuna izango du, baldin eta falta horiek obra-unitateen kontserbazio desegokiaren edo akastunaren ondorio badira soil-soilik, nahiz eta horiek eraiki eta berehala edo kontratuaren indarraldiko beste edozein unetan Zuzendaritzak aztertuak izan eta ados egon.

Obrak egin bitartean eta berme-epea bete arte, kontratista da eraikuntzan antzeman daitezkeen akatsen erantzulea.

12. ESLEIPENDUNAREN ARDURAKO ERANTZUKIZUNAK ETA KALTE ORDAINAK

Esleipenduna, obraren exekuzioak dirauen bitartean eta obraren harrera egin arte, bere ardurapeko langileen ekintza, ez-egite edo zabarkerien ondorioz, edo obraren antolaketa edo seinaleztapen eskasaren ondorioz, edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi eragin dakizkiokeen kalte eta galera zuzen eta zeharkako guztien erantzule izango da.

Kaltetuak suertatzen diren zerbitzu publiko edo pribatuak konponduak izan beharko dira, bere kontura, gai horri buruz indarrean dagoen legeriaren arabera.

Kaltetuak gertatzen diren pertsonak behar bezala konpentsatuak izan beharko dira, bere kontura.

Kaltetuak suertatzen diren jabetza publiko edo pribatuak konponduak izan beharko dira, bere kontura, jatorrizko baldintzak berrezarritik edo eragindako kalte-galerak behar bezala konpentsatuz.

Esleipendunak bere gain hartzen du Gipuzkoako Urak S.A.ri erantzun eta kalterik gabe eusteko betebeharra, kalteei dagozkien ondorioengatik eta hirugarrenei egindako kalteen ordainagatik, baldin eta bere kausa zuzenagatik edo ez-egite egozgarriagatik ezbehar baten eragilea bada, ezbehar horren erantzukizuna oso-osorik bere gain hartu beharko du.

Kasu horietan, esleipendunak ezbeharra gertatu eta berehala Gipuzkoako Urak S.A.ri kaltetunari kalte-galerak ordaintzeko dagozkion kudeaketak egin dituela egiaztatzea beharko dio.

Gipuzkoako Urak S.A. zuzeneko edo ordezkiko arduradun zibil gisa kondenatzen badute, prozedura judizial zibil, penal edo administratiboetan, esleipendunaren ardurapeko langileen ekintza, ez-egite edo zabarkerien, antolaketa edo seinaleztapen oker baten edo segurtasun-neurriak ez betetzearen ondorioz, esleipendunak bere gain hartuko du erantzukizun horren kostu ekonomiko osoa, Gipuzkoako Urak S.A.k konpentsazio edota errepikapen bidez aplikatuko diolarik. Kode Zibilean eta aplikatu beharreko gainerako arauetan aurreikusitako gainerako erantzukizun eta ekintzei eragin gabe.

Esleipendunak oso-osorik ordainduko dio Gipuzkoako Urak S.A.ri kontratuaren xede den obra gauzatearen ondorioz sor daitezkeen lan arloko edozein erreklamazio edo kalte-ordain.

Era berean, esleipendunak izango du bere gaitasun faltaren edo erabilitako materialen kalitate eskasaren ondorioz obra gauzatzeko egon daitezkeen akats edo hutsegiteen erantzukizuna.

13. OBREN HARTZEA

Obrak behar bezala egin direla egiaztatu ondoren, dagokion proiektuan edo, halakorik ezean, indarrean dagoen erregelamendu teknikoan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Urak sozietateak sareen behin-behineko onarpena egin ahal izango du, horretarako, honako hauek jaso beharko dira:

- **Egikaritutako hornidura- edota saneamendu-eroanbideak fidelki islatzen dituzten planoak (maldak, materialak, diametroak, sakonera), indarrean dagoen erregelamendu teknikoan zehaztutako betekizunekin.**
- **Hondakinen Kudeaketa Txostena (dokumentazioa aurkeztuz), obran sortutako eraikuntza- eta eraipen-hondakinen kudeaketa zuzena justifikatzen duena.**

Sareen behin-behineko onarpenak ez du salbuesten ezarritako bermea betetzetik; beraz, hornidura- eta saneamendu-sareetan antzemandako akatsak esleipendunaren kontura zuzendu beharko dira berme-aldian.

Berme-epea igarotakoan, kontrakoa esanbidez xedatu ezean, urtebeteko iraupena izango du (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren arabera), eta akats aipagarriak ez badago, sareen behin betiko onarpenari ekingo zaio.

14. KLAUSULA. Datu pertsonalen babesa.

Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Gipuzkoako Urak SA da, IFK A-20471462, posta helbidea Portuetxe kalea 16 - Blanca Vinuesa eraikina 1, 20018- Donostia/San Sebastián eta helbide elektronikoa: lopd@gipuzkoakour.eus dituen.

Datuak Gipuzkoako Urak sozietateak enpresa esleitzailerik gisa irekitako kontratazio-espedituetan parte hartzeko kontratatzailearen profilean izena emanda dauden pertsonen zerrenda kudeatzeko asmoz erabiltzen ditugu, eta enpresa lizitatzailerik aurkeztutako proposamenetan sartutako langileen datuak kudeatzeko, legezko betebeharrak betetzeko (Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorren 6.1.c artikulua), zehazki, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea eta Uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko 31/2007 Legea.

Emandako datu pertsonalak tratamendu honen esparruan aplikagarriak diren eta legez ezarrita dauden erakundeei soilik jakinaraziko zaizkie, eta ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo.

Datu pertsonalak dituzten lizitazio- eta kontratazio-espedituetan esleipen-prozesua eta ondoriozko jarduketak amaitu arte gordeko dira, eta, ondoren, blokeatu egingo dira, egoera horretan egongo direlarik sor litezkeen erreklamazioei edo zerga-legeria aplikagarriari buruzko preskripzioei dagokien aldiaren. Blokeatutako datuak langile baimenduek baino ezingo dituzte eskuratu.

Edonork du eskubidea Gipuzkoako Urak, S.A. berari dagozkion datu pertsonalak tratatzen ari den egiaztatzeke eta bere datu pertsonalak eskuratzeko. Halaber, datu okerrak zuzentzeko eskatzeko eskubidea du, edo, hala badagokio, datuak ezabatzeke eskatzeko, besteak beste, datuak bildu ziren helburuetarako jada beharrezkoak ez direnean.

Egoera jakin batzuetan, interesdunek beren datuen tratamendua mugatzea eskatu ahal izango dute, kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo defendatzeko baino ez ditugu gordeko.

Egoera jakin batzuetan, eta beren egoera partikularrekin zerikusia duten arrazoiengatik, interesdunek beren datuen tratamendua ukatu ahal izango dute. Kasu horretan, GIPUZKO-

AKO URAK, S.A.k datuak tratatzeari utziko dio, legezko premiazko arrazoiengatik izan ezik, edo erreklamazioak egin edo defendatu ezean.

Interesatuek datuen eramangarritasuna eskatu ahal izango dute, Gipuzkoako Urak, S.A.ri eman dizkioten datuak formatu egituratuan, erabilera komunean eta irakurketa mekani-koan eskuratzeko, beren kabuz deskargatzeko edo Gipuzkoako Urak, S.A.k beste erakunde bati helarazteko.

Interesdunak bere eskubideak baliatu ahal izango ditu, eta, horretarako, eskabidea bidali beharko du gorago adierazitako posta-helbidera edo helbide elektronikora. Eskaera-eredu bat dago gure pribatutasun-atarian: www.gipuzkoakour.eus

Pertsonak uste badu bere eskubideak ez direla behar bezala artatu, eskubidea du da-tuak babesteko agentzia eskudunean erreklamazioa aurkezteko.

Datuak konfidentziasunez tratatuko dira, eta segurtasun-neurri tekniko eta antolamen-du-neurri egokiak bete beharko dira datuak aldatzea, galtzea, tratatzea edo baimenik gabe es-kuratzea saihesteko.